

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

ALKATETZAREN, UDAL HARREMANEN ETA BERDINTASUN SAILA

Vitoria-Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 24an hartutako erabakiaren laburpena: 2026an merkataritza establezimenduetan kanpoko errotulazioa aldatu eta izenetan euskara sartzeko, zein merkataritza eremuan euskararen presentzia eta erabilera sustatzearekin lotutako gastuetarako dirulaguntzak emateko udal programaren deialdia

BDNS(Identif.): 905350.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/905350>).

Diru-laguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen datu-basean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) kontsulta daiteke.

Lehena. Onuradunak

Pertsona fisiko nahiz juridikoei eskuratu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen diren laguntzak, baldin eta ezaugarri hauek betetzen badituzte: (a) kokalekua Vitoria-Gasteizko udalerrian izatea (b) jarduera izatea ostalaritza, merkataritza edo zerbitzuak ematea, (c) jarduera jendaurrekoa izatea, Gasteizko udalerrian bertan, (d) diruz laguntzen diren lanak 2025eko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra bitarteko epean egindakoak izatea.

Bigarrena. Helburua

Jendaurreko atentzioa duten merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuetako establezimendu edo entitateetan euskararen presentzia indartzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Vitoria-Gasteizko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko apirilaren 24an egindako bilkuran onartu ditu, eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdiari 6.000,00 euroko aurrekontua egokitu zaio.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2026ko irailaren 22 arte.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 24a

Alkatetzaren, Udal Harremanen eta Berdintasun Saileko zuzendaria
ARACELI DE LA HORRA GUTIÉRREZ